

## KOSTUEN EGITURA

Mandoro enpresan, Safirst eskumuturrekoak egiteko, kostu ezberdinak egongo dira. Lehenengoz, kostu finko batzuk egongo dira. Hasteko, dendaren alokairua egongo da. Aurretik azaldu dugunez, denda bat alokatu nahi dugu. Gure lokala



Perez Galdós kalean dago kokatuta, eta 245€-ko kostuak dira hilabetero. Kostu hauen barruan argia eta ura daude sartuta. Gainera, pertsona helduentzako zahar-etxe bat dago gure lokalaren aurrean.

Bestalde, kostu aldakorak daude. Lehenik eta behin, geolokalizatzaile bakoitza 20,24€-tan erosten dugu, eta eskumuturreko bakoitza 0,60€-tan erosten dugu. Hala ere, hasieran 300 unitaten erosi nahi ditugu, beraz, hasieran 625€ inbertitu beharko genituzke lehengaietan. Baina kantitate handietan erosiko ditugunez produktuak, 625€-tik 415€-ra pasatuko ziren kostuak.

Shipiuz-en kostuak izan behar ditugu kontuan ere. Enpresa honek gure SaFirst-ak kontsumitzaileei bidaltzeko, 24,90€ ordaindu behar ditugu hilabetero. Beraz, azkenik, kostu guztiak gehituz, lehenengo hilabetean 685€ko kostuak izango genituzke, eta hurrengoetan saldutako eskumuturreen arabera izango litzateke.